

Juan Carlos

Errege

Azaroaren 20an hil zen Francisco Franco Bahamonde, Espainiako Estatuaren buruzagia. Telebista, irratia eta egunkariak berri honen lekuko izan dira ondorengo egunetan. Eta Haren gorputzaren aurrean jende askok agertu nahi izan ditu esker ona eta doluminak Haren arimaren alde mezak atera dira bazter guztietan. Francisco Franco Bahamondek, urtetako bakea eman duen Buruzagiak, izan beza izan bake bera betikotasun guztian.

Azaroaren 22an Juan Carlos erregegaia errege izendatua izan zen, legearen arabera.

Juan Carlos de Borbón y Borbón Erroman jaio zen 1938garrengo urtarrilaren 5ean.

Familiarekin atzerrian hamar urte arte bizi ondoren Espainiara heldu zen Francoren eskabidez eta Don Juan bere aitaren baimenez.

1969garrengo uztailaren 22an, Francoren ondorengo izatea onartzen du. Geroztik bi aldiz izan da Francoren ordezkari Espainiako Estatuaren Buruzagi.

Bidezko zitzaionez Francorekiko zorra eta esker ona agertu du Juan Carlos Erregek bere lehen hitzaldian. Aitari eta familiari zor dion heziera ona ere aitortu du.

Aldi berri baten atarian garela esan du lehen hitzaldian. Besteak beste hiru asmo haundiren berri eman du: herriari parte hartzeko bideak egin, demokraziaren arauetara ohituz; guztiok berdina izango garen zuzentasun egoera sortu, inor ahanzi eta inor berezi gabe; eta Estatuaren barruan diren herri desberdinen nortasunaren, kulturaren eta historiaren euskarri izan.

Bete eta egiazta ditzala lehen bait lehen asmo hauek opa diogu Juan Carlos Erregeri. Eta haseratik sinesgarri gerta daitezen eman diezaiela espetxeratu eibarkamen zabal eta orokorra eskatzen diogu umilki.